

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

3737

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 29koa, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariarena, zeinaren bidez herritarren parte-hartzearen esparruko Elkarrekin Bonu Programaren 2025erako deialdia egiten baita.

Ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren bidez arautzen da Elkarrekin Bonu Programa, ekimen osagarri bat bakea, giza eskubideak, indarkeriarik eza eta printzipio demokratikoak sustatzeko. Programaren helburu nagusia da elkarte-sarearen eta erakunde publikoen arteko lankidetzak-ekintzak ugaritzea, bizikidetzak- eta adiskidetzak-kultura sendotzeko.

Programa horren bidez, dirulaguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

Alde horretatik, Dekretuaren 5. artikulua diruz laguntzekoak diren hiru lerro bereizten ditu, eta horietako bat, hain zuzen ere, herritarren parte-hartzearen esparruan garatutako proiektuak finantzatzeko da.

Programa honetarako aurrekontu-kreditu nahikoa dago Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025erako Aurrekontu Orokorretan.

Bestalde, Elkarrekin Bonu Programa Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren 2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotako ekimenetako bat dela aipatu behar da. Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2025eko otsailaren 5eko Aginduaren bidez onartu zen plan hori, eta helbide honetan dago eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/orden/planestrategico_subv_25/eu_def/adjuntos/JGE_Aldirako-Dirulaguntzak2025-208.pdf

Aipatutako dekretuaren 7. artikulua arabera, laguntzak emateko deialdia urtero egingo da, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariaren ebazpen baten bidez, eta deialdiak honako hauek jasoko ditu: deialdiaren xedea, dirulaguntzaren ildo bakoitzerako zuzkidura, bonuen zenbatekoa, proiektuen entitate hartzaileek eman beharreko gutxieneko zenbatekoa, eskabideak aurkezteko tokia eta epea, eskabide-eredu normalizatua, dirulaguntzak justifikatzeko epea eta modua eta, hala dagokionean, bide elektronikoak erabiltzeko prozedura eta jarraibideak.

Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen azken xedapenetako lehenaren bigarren paragrafoan jasotakoarekin bat etorriz (2023ko abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247.zb.) deialdi hau lege horretan xedatutakoari lotuta dago.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Elkarrekin Bonu Programaren 2025. urterako deialdia egitea, herritarren parte-hartzearen esparruan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ematen diren datu pertsonalak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko laguntzak eta dirulaguntzak izeneko tratamendu-jarduerari erantsiko zaizkio.

– Arduraduna: Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritza, Justizia eta Giza Eskubideen Saila.

– Helburua: Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arloko laguntzak kudeatzea.

– Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak: ez da daturik lagatzen.

– Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/144400-cap2-eu.shtml

Araudia:

– Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra:

www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak bermatzekoa:

www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikulua 5. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, laguntzak edo dirulaguntzak emateko prozedura edozein dela ere, hartarako ezarritako gehieneko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzeak legitimatzen ditu interesdunak dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertzeko. Isiltasunak ez du administrazioa salbuesten dagokion prozedura esanbidez ebaztetik, eta isiltasunaren aurreko legitimazioa gertatzen da administrazio-errekurtsoa jarri ahal izateko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak ondokoei lotuta daude: 110/2014 Dekretua, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonu Programa arautzen duena; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko araudia.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sailburuordetzan, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 29a.

Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendaria,
AINHOA ZUGASTI BILBAO.

ERANSKINA

HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ARLOKO ELKARREKIN BONUAK
PROGRAMAREN DEIALDIA

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Elkarrekin Bonu Programaren 2025eko deialdia egitea, herritarren parte-hartzearen esparruan.

2. artikulua.– Denbora-eremua.

Bonuak eskatzeko arrazoi diren proiektuak 2025eko uztailaren 1etik 2025eko abenduaren 15era bitartean garatu ahal izango dira.

3. artikulua.– Diru-zuzkidura.

Dirulaguntzen programa honetara 50.000 euro bideratu dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko da.

4. artikulua.– Entitate onuradunak eta entitate hartzaileak.

1.– Elkarrekin Bonu Programaren onuradun izango dira irabazi-asmorik gabeko entitateak, bake eta bizikidetzaz gaitan aritzen direnak. Entitateok Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrekin edo Fundazioen Erregistroan inskribatuta egon behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoa izan behar dute jardun-eremu, eta ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren 2. eta 6.1 artikuluetan ezarritako baldintzak bete, baita Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoetan ezarritakoak ere.

2.– Herritarren parte-hartzearen esparruko dirulaguntzen entitate hartzaileak hauek izango dira: bakea, bizikidetzaz eta giza eskubideen esparruan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteak, erakundeak eta gizarte-mugimenduak.

5. artikulua.– Bonuen zenbatekoa eta gehieneko muga.

1.– Herritarren parte-hartzearen esparruko bonuak 70 eurokoak izango dira, justifikatutako prestakuntza- edo dinamizazio-zerbitzuen ordu bakoitzeko.

2.– Proiektuen entitate hartzaileek, gutxienez, eman zaizkien bonuen % 10 ordaindu beharko diote entitate onuradunari, hau da, gutxienez 7 euro eman zaien bonu bakoitzeko.

3.– Ezingo dira metatu bonuak proiektu berean kopuru hauek gainditzera:

- 2.000 euro, 100 pertsona baino gutxiagok parte hartzen duten ekimenetan.
- 5.000 euro, 100 pertsona baino gehiagok eta 500 baino gutxiagok parte hartzen duten ekimenetan.
- 10.000 euro, 500 pertsona baino gehiagok parte hartzen duten ekimenetan.

4.– Europako Batzardeak 2023ko abenduaren 13an onartutako 2023/2831 (UE) Erregelamendua bete beharko dute laguntzek, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluetan minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, 2831. zk., 2023-12-15ekoa). Laguntza hauek minimis motako laguntzat jotzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako laguntzaren guztizkoak ez du gaindituko hirurehun mila (300.000) euroko kopurua, hiru urteko edozein alditan. Ulertzen da muga horretatik beherako dirulaguntzek ez diotela merkataritzari eragiten eta ez dutela lehiakortasuna faltsutzen; horren ondorioz, ez dira sartzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluetan aplikazio-eremuan.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Prozedura honetan jasotako izapideak baliabide elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte entitate interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua araberara.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztapenak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1024411>

Eskabidearen ondorengo izapideak –jakinarazpenak eta justifikazioak barne– bide elektronikoz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Ordezkaritza baten bidez ere izapidetu ahal izango da elektronikoki, eta horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordetza Erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaritza>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziutagiri-elektronikoak>

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, 2025eko urriaren 1era bitartean, non eta funtsak ez diren egun hori baino lehen amaitzen. Hori gertatuz gero, dekretu arautzailearen 5.3 artikuluan ezarritakoa betetz, gertaera horren berri emango da Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariaren ebazpen baten bidez, non ordura arte ebazteke zeuden dirulaguntza guztiak ukatuko baitira, eta ez da onartuko beste eskabiderik.

Emango diren laguntzen guztizko zenbatekoak ezingo du gaintitu zuzkiduren zenbatekoa, edo hura eguneratzearen ondoriozkoa. Horrenbestez, ez da dirulaguntza gehiago emango aipatutako zenbatekoa agortzen denean eta, beraz, egoera horretan eskatutako dirulaguntzak ukatu egingo dira. Hala badagokio, inguruabar baten zein bestearen berri emango da Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariaren ebazpen baten bidez.

8. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidea, erantzukizunpeko adierazpenak barnean dituela, inprimaki arautuan egin beharko da, zeina [euskadi.eus](https://www.euskadi.eus) egoitza elektronikoa baitago eskuragarri. Horretarako, ebazpen honen 6.2 artikuluan zehaztutako sarbidea erabiliko da. Eskabidearekin batera, ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

9. artikulua.– Balorazio Batzordea.

Balorazio-batzorde bat eratuko da. Honako hauek izango dira kideak:

- Ainhoa Zugasti Bilbao, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendaria, batzordeburu.
- Nora Onaindia Leturiondo, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritzaren teknikaria, batzordekide.
- Laura Pérez Recio, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritzaren teknikaria, idazkari.

10. artikulua.– Emateko prozedura.

Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritzak kudeatuko ditu laguntza horiek, eta Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sailburuordeak ebatziko ditu.

11. artikulua.– Ebazpenak jakinaraztea.

Laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak entitate eskatzaileei jakinaraziko zaizkie.

12. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.

1.– Dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko epea 2025eko abenduaren 15ean bukatuko da.

2.– Dirulaguntzaren entitate onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte dirulaguntza zertan erabili duten justifikatzeko:

a) Proiektu bakoitza gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak: programen aleak, kartel iragarleak, argazkiak eta argitaratutako gainerako material grafikoa, idatzizkoa zein entzunezkoa.

b) Egindako proiektuen memoria xehea, honako datu hauek aipatuta: proiektua zein egunetan gauzatu den; parte hartu duten hartzaileak –sexuaren arabera bereizita– generoaren ikuspuntua nola txertatu den, eta emaitzei buruzko azken balorazioa.

c) Entitate hartzailearen ziurtagiria, non jasoko baita proiektuan zenbat pertsonak parte hartu duten, zenbat ordu eman diren eta entitate hartzaileak zenbat ordaindu duen.

3.– Justifikazioak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, honako helbidean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Aurreko puntuan adierazitako agiriak eskaneatuta eta elektronikoki sinatuta aurkeztuko dira.